



UDABERRIA

Osgarbi dago zerua
 Bare-bare itsasua,
 Mendayak dira lurmendu
 Otatzak apaindu.

Egi-chapaldan liliak
 Zabaldu ditu orriak,
 Artzaya kantari dabil
 Alagotik urbill

Sagatz eta chillardiak
 Pikortu dira guziak,
 Larrosadiko kiderrak
 Chit daude ederrak.

Birigarrua urbildu
 Danetik ez da isildu,
 Jantzi ditu zugastiak.
 Zirrinka berriak.

Biñatu dira choriak
 Ugaldu ere umiak,
 Elur zuriyak amildu,
 Ibayak sotildu.

¿Zein da onela sayatzen
 Gauzik ederrenak biltzen?
 ¿Zein da aben emallia?
 ¿Zein? ¡Udaberria!

JOSÉ ELIZONDO